

Balendin adiskidea:

Ohore bat da neretzat, zuen borondatez, zure eta Enbeitatarron oroitzapenen lehenengo irakurle neu izatea. Bi gaualditan pozarren burutu dut egitekoa: orrialdeek bata bestearen ondotik tiraka eraman naute azkeneraino, kontalari onaren trebetasunak erakarrita.

Oraintsu kazetari batek zioen bezala, bizitzan gertatutako gehienak dagoeneko «orain hogeitun urte» bizi izan ditugunok abantaila kaskar bat badugu behintzat: gogoratuak berbizi ere egin ditzakegula. Gozamen horixe izan dut zure liburu honen orrialdeetan.

Batez ere Enbeitatarron «saga» horren historia maitagarria izan zait. Zuok, arrazoi guztiarekin, aita eta aitona «Urretxindorra» gogoratu ohi duzue, baina nik kasik nahia-go dut zuen familiarte zabal-luzearen etengabeko ahalegina gogoratzea. Jarraian zatozten hiru belaunaldietan beti gora eta hedatuz joan da zuen euskal lana.

Euskadiko Bizkai hori bertatik bertara maite ahal izan dugun askok Enbeitatarron artean, Ormaetxean, topatu genuen (nik 1951tik aurrera) euskararekiko talde-kontzientziarik eraginkorrenetako bat. Oroitidazlan hau irakurriko duenak berehala dakike zer esan nahi dudana. Bilbotik edo Finlandiatik, Araba-Gipuzkoetatik, zure seme-alaben lagunarte ugartirik joandakoak bihotz-zabalik hartu gintuzuen beti: zuen

familiako lana zenuten hori. Baina Ormaetxetik kanpo ere zerbait gehiago egin zitekeela ikusi zenutenean, auzoan, Bizkai osoan gero, Araban ondoren, aurkitu dizkiozue euskaltzale-tasunari modu berriak. Familia eredugarri baten setakeria mi-ragarria izan da dena, zu zeu buru zinela.

Azken hogeitabost urteetan Bizkaiko bertsolaritzak; be-re berrikuntza unetik, zuei zor dizuena ezaguna da, eta libu-ru honetan ere ikus daiteke historia horren zerbait.

Zerbait, diot, zeren orrialdeotan esandakoek ez lukete bere horretan bukatu behar. Laburregia gertatu zait liburua, eta zuk, Balendin, badakizu hurrengoarekin buka dezakezula eki-naldi honek eskatzen duen lana: zure hurrengo liburua. Ne-re agur hau herronka da, beraz, eta ez besterik. Egiteko du-zun lanaren zain geratzen gatzaizkizu adiskide eta irakurleok.

Liburuko eta isildutako asko neure baitan gogoratu, agu-rrik bihozkorrena larogei urte bete-bete dituzun honetan.

JOSEBA INTXAUSTI

Donostia, 1986-IX-9